

50. URTEURRENAREN BIDEO LEHIAKETAREN OINARRIAK

LEHIAKETAREN XEDEA

DOLORES IBARRURI BHIk *BIDEO LABURREN LEHIAKETA* antolatu du. Lehiaketaren leloa "INSTITUTUAREN 50 URTE GALLARTAN" da eta bere xedea hau da: Gallartan eta, orokorrean, Abanto-Zierbenan eta inguruko herrietan, euren ikasleengan edota familiengan 50 urte hauetan institutuak izan duen eragina islatzea, adieraztea edota nabarmentzea.

Kalitate teknikoaren edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da.

AURKEZTEN DIREN LANEN EUSKARRIA

Edozein adierazpen artistiko onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko euskarrian aurkezten bada: flashmob, errezitatutako poemak edota kameraren aurrean irakurritako hausnarketa- testuak, bideoklipak, argazkiak, fotomuntaketa, fotonobelak, lipdub, dantzak, film laburrak, animaziozko proiektuak, proiektuen edota artelanen aurkezpenak, performanceak, herritarren esku-hartzeak, etab.

Ikus-entzunezkoak azpтитuluak izatea gomendatzen da. Azpтитuluaren helburua irisgarritasun unibertsala bermatzea da, hau da, edonork ulertu ahal izatea bideoaren mezua, zatiren batean hitz egiten bada.

NORTZUEK ETA NOLA PARTE HARTU

2021ean 12 urte betetzen dituen edo nagusiagoa den edozein pertsonak har dezake parte, banaka edo taldeka.

Parte hartzerako bi kategoria daude:

1. kategoria: 2021ean betetako 12 urtetik 18 urtera dituztenak
2. kategoria: 2021ean betetako 18 urtetik gora dituztenak

Talde-lan batean parte hartzen dutenen adinak ezberdinak direnean, parte hartzaileen erdiak baino gehiagok 18 urtetik gora baldin badu, 2. kategorian hartuko dute parte.

Pertsona edo talde bakoitzak nahi duen beste lan aurkez dezake.

AURKEZTUTAKO LANEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Formatua: Lan guztiak bideo formatuan aurkeztu beharko dira.

Bideoa honako bi plataformaren batera igo beharko da: YOUTUBE edo VIMEO (aukera publikoan).

Baldintza teknikoak: Bideoek gutxienez minutu bat eta gehienez 3 minutuko luzera izango dute, kredituak barne (baldin badituzte).

Lanek lehiaketaren helburuari erantzun behar diote: 50 urte hauetan institutuak izan duen eragina islatzea. Aurkeztutako lanen edukiak helburuarekin zerikusirik ez badu, edota beraren aurkakoa edota kalterako izanez gero, lehiaketaren antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete. Ebazpena parte-hartzaileei jakinaraziko zaizkie.

Originaltasuna: proposamenek originalak izan beharko dute; ezin dira izan plagiatu, usurpatu edota hirugarren pertsonen kopiatutakoak.

Lanak ezin izango dira beste jaialdi edo lehiaketa batzuetara aurkeztutakoak izan.

Hizkuntza irizpideak: lanak euskaraz, gazteleraz, ele bietara zein bestelako hizkuntzaren batean aurkeztu ahal izango dira. Euskararen erabilera aintzat hartuko da.

Musika eta irudien erabilera: egile-eskubiderik ez dutenak erabiltzea gomendatzen dugu (copyleft lizentziadunak edota norberak sortuak). Egile-eskubideak dituzten irudiak edota abestiak erabiliz gero, parte-hartzaileek beraien gain hartu beharko dituzte bideoa igotzen duten plataformek zein autoreek bideoaren aurka hartzen dituzten neurriak. Era berean, jabetza intelektualaren eskubideren bat urratzen duela egiaztatzen bada, antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete.

18 urtetik beherako parte hartzaileentzako baldintza bereziak:

- Parte hartzen duten 18 urtetik beherako gazteek DOLORES IBARRURI BHIko ikasleak ez badira, norbanakoen baimenaren dokumentua, ama-aitaren zein legezko tutoreen baimena, aurkeztu behar izango dute lehiaketan parte har dezaten.

- Talde lana aurkeztuz gero, eta taldearen parte hartzaileen bat DOLORES IBARRURI BHIko ikaslea ez bada, banakako baimenaren dokumentua aurkeztu beharko du.

YouTube edo VIMEOra igotako bideoen deskribapenean, bideoaren izenburua erantsiko da. Ez dira parte-hartzaileen izen-abizenak edo datuak jarriko.

NOLA AURKEZTU LANA LEHIAKETARA

1. Igo ikus-entzunezko lana YouTube edo VIMEOra. Plataforma hauek sortzen duten esteka da aurkeztu behar dena.
2. Helbide honen bidez jarraian adierazten den informazioa helarazi:
<https://labur.eus/3mCpE>
 - Bideoaren izenburua
 - Bideoaren esteka
 - Egileen, hau da, bideoa aurkezten duten izena, bi abizenak eta jaiotza-data.
 - Egileen ordezkariaren telefono eta helbide elektronikoa.
 - Parte hartzaile bakoitzaren izena, bi abizenak eta jaiotza data.
 - Lehiaketan parte hartzeko baimenak onartu.
3. Lehiaketarako lana aurkeztu eta gero, antolatzaileek oinarrietan agertzen diren baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatuko dute.
4. Egiaztatu eta gero, antolatzaileek emandako emailera jakinarazpena bidaliko dute, lehiaketan onartu dela edo ez dela onartu jakinarazteko.
5. Onartutako lanak DOLORES IBARRURI BHIko webgunean publikatuko dira.

LANAK LEHIAKETARA AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko eta jasotzeko epea 2021eko abenduaren 21ean itxiko da, 23:59an.

SARIAK

- | | |
|--------------------------------|--------------------------------|
| 1. kategoriako 1. saria: 100 € | 2. kategoriako 1. saria: 100 € |
| 1. kategoriako 2. saria: 50 € | 2. kategoriako 2. saria: 50 € |

Sariak kirol materiala edo liburu dendako materiala erosteko agirien bitartez banatuko dira, saridunaren aukeran.



Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik uzteko eskubidea dute.

Sarietako irabazleek beren lanaren eskubideak DOLORES IBARRURI BHIri lagatzen dizkiote erabili ahal izateko, hala erabakiko balu.

EPAIMAHAIA

Antolatzaileek epaimahaia izendatuko dute DOLORES IBARRURI BHIko hezkuntza komunitate kideen artean.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da bi kategorietan aurkeztutako lanei buruz eztabaidatzea eta bideo irabazleak hautatzea.

Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

EPAIMAHAIAREN EBAZPENA

Lan sarituak 2021eko abenduaren 23an emango dira ezagutzera.

Sari banaketa 2021eko abenduaren 23an izango da.